



## Tolosako Zine Klubak bihar 27. denboraldia hasiko du

**'BEREZIAK'** ▶ Film 'bereziak' eskaintzen saiatuko da ostegunetan Leidor zineman

**FILMAK** ▶ Film ez komertzialak, kritika onak dituztenak eta ikusi ez direnak eskaintzen ditu ▶ 2

### ASTEASU ▶

**'Bowling for Columbine' emango dute gaur**

Filma kultur jardunaldien barruan kokatzen da ▶ 4

### IBARRA ▶



I.TERRADILLOS

**Guraso Eskola hasi da heziketa lanean**

Gizonezkoen hutsunea aipatu dute irakasleek ▶ 6

### TOLOSA ▶

**Larunbat honetan, batzarra AHTri buruz**

Elkarretaratzea izango da jarraian ▶ 3



## Industriagune berriko lanak aurrera doaz herrian

**IKAZTEGIETA** ▶ Industriagune berriko hiritartze-lanak —zonalde libreak, aparkalekuak, espalioak, bidea...— amaitzen ari dira eta ondoren —laster— pabilioiak egiten hasiko dira Ikaztegiatan, beste industriagunearen parean. Hamabi eta hamasei hilabete inguru iraungo dute pabilioiak altxatzeko lanek.

Aburuz eraikuntza enpresa ari da lanak egiten. Inguruneak 17.270 m2 hartuko ditu eta horietako 8.676 industriagunearentzat izango dira. Udalak oraindik ez daki zenbat pabilioi izango diren, plan partziala besterik ez baitago onartuta. Epe motzean pabilioak altxatzeko baimena eskatuko dute. OLAIJA ESKITXABEL ▶ 5

ZINE KLUBA ▶

# 27. urtez film 'bereziak' eskaintzen

Bihar hasiko dira denboraldi honetako  
Zine Klubaren film emanaldiak Leidor zineman



Tolosako Leidor zineman izaten dira zine klubeko saioak ostegunetan 21:30ean. MADDI SOROA

MADDI SOROA

Zinemazaleek badute gus-tura egoteko arrazoirik, izan ere, Tolosako Zine Klubak bihar irekiko baititu ateak 27. urtez. Urtero legez, ostegunetan izango dira emanaldiak, 21:30ean Leidor zineman. Sarrera, 4,60 eurokoa izango da. Zine Klubaren arduradunak Juan Ignazio Lope eta Jose Mari Lopetegui dira. Urtero bezala, film bereziak ilusio eta gogoz beterik ekartzeaz arduratzen direnak.

Lopetegiren hitzetan «hainbeste urtez zine kluba zurrera atera bada, jendeak gustuko duelako izango da». Lopetegik esandakoaren arabera, 100 lagun inguru biltzen da ostegunero film gosez Leidor zineman. Normalean, jende bera izaten da ostegunerokoa, ohitura hartuaz, film komertzialetatik ihes, film bereziagoetaz gozatzeko aukeraren bila doana. Beraz, jendeak film komertzialetatik at apustua egiten duenaren isla garbia daukagu eskuartean.

Lopetegik adierazi duenez, Tolosako Zine Klubaren helburu nagusia, beste zine klub asko eta askoren kasuan bezala, komertzialak ez diren filmak eskaintzea da, ohiko zinemere-

tan aurkitzen ez diren film komertzialak tolosarren begietara ekartzea, alegia. Hala ere, badira zenbait kasu, non komertzialak ez diren filmak ere eskaintzen diren. Horixe gertatu da denboraldi berrian eskainiko duten lehenengo filmaren kasuan adibidez. Izan ere, *Cold Mountain* eskainiko baita bihar. Film hau, zinema askotako leihatilatan egon da denbora luzez, beraz, komertzialtaz har daiteke.

Emanaldi horiek eskaintzearen arrazoi nagusietako bat, Leidor zineman eskaini ez izana da. Hau da, gerta daiteke, Tolosako Zine Klubaren antolatzailaren ustetan kritika ona eta ikustea merezi duen filma egotea merkatuan, baina film hori ez bada Tolosan eskaini, zine klubak ikusteko aukera ematen du.

Beraz, esan daiteke, zine klubeko antolatzailaek, kritika ona izatea, entzutetsua izatea, zinemagileen artean aintzat hartua izatea edota hainbat sari jaso dituen filma izatea bezalako irizpideak erabiltzen dituztela zine klubean eskaintzen diren filmak aukeratzeko.

Gauzak horrela, zorianak Tolosako Zine Klubari, 27 urtez zinemaren alde ezkutua eskaintzeagatik.

## EGITARUA ▶ LEHEN HIRUHILABETEA

Hauek dira Zine Klubak lehen hiruhilabetearen eskainiko dituen filmen laburpenak.

### 'COLD MOUNTAIN'

**Urriak 7. Drama.** 1860an, Ipar Ameriketara. Hiru pertsonaiek bizirauteko duten elkarrekiko menpekotasuna islatzen du filmak. Inman soldadua da, eta bere maitearengana iristeko estatua zeharkatu du. Adak, bizimodu erraza alboratu eta gogor ekin beharko dio bizitzari. Rubyk, berriz, konfidantza, segurtasuna eta errealtatearen kuspegia ekarriko dizkio Adari.

### 'EL ABRAZO PARTIDO'

**Urriak 17. Drama.** «Hauxe da nire aitaz dudana irudi bakarra. Etxeko bideoa da, baina nahiko ongi agertzen da. Osaba Eduardoren alboan dago, errabinoaren atzean. Pozez eta harrotasunez erdaintzen naute. Lehengoan, aita Israelera joan zen gerran borrokatzerako, eta oraindik ez da etorri. Amari eta anaiari ohikoa iruditzen zaie zuzi hau, baina nik ez dut ezer ulertzen».

### 'BOWLING FOR COLUMBINE'

**Urriak 21. Dokumentala.**

«Ameriketako Estatu Batuetan bizi dugun beldurraren eta indarkeriaren patologiaren ikuspegi zorrotza eta eztabaidagarria eskaintzen du oraingo film honek. Armengatik eroturiko Estatua gara ala eroturik gaude? Charlton Heston eta Riflearen Elkarte Nazionalaren errua da? Edo arrazakeria arazoak dira hildakoen errudun?».

### 'VIAS CRUZADAS'

**Azaroak 4. Drama.** Finbar McBride, ipotxa da eta nahi duen gauza bakarra, bakarrik egon eta jendeak bakean uztea da, izan ere, ia ezinezkoa egiten baitzaio oharkabean pasatzea. Horretarako, desagertzeko alegia, bere pasioa diren trenak erabiliko ditu ihesbide gisa. Bere lagun bakarra hil zenetik, Nueva Jerseyko basoan dagoen tren estazio batean bizi da.

### 'ZAMAN, EL HOMBRE DE LOS JUNCOS'

**Azaroak 11. Drama.** Zaman eta bere emaztea, Iraken bizi dira, urtegi inguraturiko herrialdean. Egun batean, emazteak gerraren ondorioz sorturiko gaixotasun arraro bat duela ohartzen da Zamanek hirira joan beharko du botika

bila. Ondorioz, Trigrisen nabigatuz, antzinako historia eta lurra ezagutuko ditu..

### 'MACHUCA'

**Azaroak 18. Drama.** Txilen, 1973an kokatua. Gonzalo Infante eta Pedro Machuca Santiagon bizi diren hamaika urteko haurrak dira. Gonzalo ongi egokituriko auzo batean bizi da; Pedro, berriz, legez kanpoko herririk xumean. Harresi ikusezin batez banaturiko bi mundu ezberdin dira, ametsak egi bihurtzeko, ordea, harresia bota nahiko dute.

### 'CAPTURING THE FRIEDMANS'

**Azaroak 25. Dokumentala.** Friedman sendiak, beren bizitza zoriotsua nola hondoratu zen ikusi eta bizitu zuten, izan ere, 1987an aita eta seme gazteena kartzelaratu baitzituzten pederastiagatik. Estatu Batuetako hedabideek kasua jarraitu zuten arren, etxean grabaturiko bideoek argi eta garbi islatzen dute bizirik errealtatea.

### 'UNA PELICULA HABLADA'

**Abenduak 9. Drama.** Rosa Mariak, Lisboako Unibertsitateko

historia irakasleak, itsas bidaia bat egingo du Mediterraneoan zehar bere alaba Maria Joanarekin. Bombayen, senarrarekin elkartu eta oporretara joango dira. Bidaian, ezgutuzen ez zituen hiri ezberdinak ezagutuko ditu Rosa Mariak, hala nola, Atenas, Estambul, Egipto...

### 'MEMORIES OF MURDER'

**Abenduak 16. 'Thriller'.** 1986an Hego Korean, Gyunggi probintzian. Neska gazte baten gorpua agertu da gogorki borxatua eta eraila. Bi hilabete beranduago, baldintza beretsuko beste hainbat borxaketa eta erailketa gertatzen dira. Hego Korean ez dute behin ere horrelako ankerkeriarik ezagutu, eta orain, seriean eginiko erailketa bat delakoan daude. Horrela, Seuletik datorren Park Doo-man, herriko polizia zuzenduriko destakementu berezi bat antolatzen dute. Hala ere, erailketen soluzioa geroz eta urrunago dago eta detektibeak desesperatuz doaz. Film hau, benetako istorio batetik ateratako da.

### 'OPEN RANGE'

**Abenduak 23. 'Western'.** Charley Waite, Boss Spearman,

Button eta Mose Harrison, iraganetik ihesi dibiltzen gizonak dira. Horregatik aukeratu dituzte larre zabalak eta ganadua.

**Mendebalde urruneko kodeaz** elkarturik, bakeroek gutziz ebitatzen dute indarkeriaren erabilera. aukeratu dituzte. Hala ere, tirania eta korruptzioaz beteriko mugan dagoen hiri batera egindako bidaia, bizitza aldatu eta akziora pasatzerako behartuko ditu bakeroak. Charleyk emakume berezia ezagutuko du.

### 'LAS INVASIONES BARBARAS'

**Abenduak 30. Komedia.** Remy konbentziturako dago basakeriazko garai batean ari garela. Dante eta Montaignerekin sortu zen mendebaldeko kultura desagertzeko zorian dagoela uste du. Erdi Aroan bezala, oso garrantzitsua iruditzen zaio eskuizkribuak gordetzea.

Nataliek, Remyren liburutegiaren oinordekoak, lan hori egin beharko du. Remyk 50 urte inguru ditu, dibortziatua da eta erlaxatzen dago. Louisek — emazte ohiak— Londresen dagoen beren semeare —Sebastieni— deitzen dio laguntza eske. Azkenean, asko pentsatu ondoren, Sebastien Montralera bueltatuko da ama laguntzera eta aita moraliki animatzerako.



ASTEASU ▶ KULTURA

# Zinema emanaldia gaur 'Bowling for Columbine' filmarekin

Kultur jardunaldien barruan, Michel Moore zuzendariaren filma ezaguna ikusi ahal izango da arratsaldeko zazpiretan

IMANOL GARCIA

Asteasuko kultur jardunaldien ekitaldi berri bat burutuko da gaur, arratsaldeko zazpiretan kultur etxean, Michel Moore zuzendariaren 'Bowling for Columbine' filmaren emanaldia-rekin. «Estatubatuarrak arnengatik erotuta gaude edo berez gara eroak?» galdetzen dio bere buruari Moore dokumental egileak. Filma honen muina Estatu Batuetan dagoen arma kopuru handiaren eta gertatzen diren arma-hilketa ugarien zergatien ausnartzea da, ironia ikutu ezin hobea erabiliz.

Kritikariaren ahotan, 'Bowling for Columbine' «obra indartsua da, ikuslegoaren arrasto sakona uzten duena. Estatubatuetarrentzat belduraren kulturaren gaitzespen ironiko eta errukirik gabekoa da, hortzetaraino armatu eta kontrola guztiz galtzea ekarri duen kultura. Munduko beste biztalezako umore ikutua duen abisua da edozein herrik



Michel Moore zuzendaria kamera eta eskopetarekin. HITZA

Estatu Batuetako gizarte eredu hartuz gero gertatu dakio-kena azalduz».

## Irteera Bizkaian zehar

Asteasuko herritar guztiei zuzenduta —haur, gazte, heldu eta zahar—, udalak irteera antolatu du Bizkaia datorren astelehenerako, urriak 11. Irteera goizeko 8:30ean izango da, herriko plazatik. Lehenengo geldialdia Gernikan egingo da,

bertako astelehenetako feria bisitatzeko. Ondoren, Kortezubin bazkalduko da eta azkenik Elantxobe herria bisitatuko da. Bazkariko menua sarrerakoak, salda, txipiroiak edo entrekota, postrea eta kafea izango da. Ibilaldiaren prezioa 25 eurokoa da eta autobusean kobratuko da. Interesatuak bihar dute azkenengo eguna izena emateko. Horretarako arratsaldez 661 08 26 56 telefonora deitu behar dute.

VILLABONA ▶ KIROLA

## Uztaritze nagusitu zen Endika Abril txapelketan

Kapito Harri taldeak Hazparneko Noizbait sei tantotan utzi zuen igandeko finalean



Uztaritze Kapito Harri taldekoak txapela buruan dutela. HITZA

I. GARCIA

Ez zen sorpresa handirik izan Villabonan jokaturako aurtengo Endika Abril oroimenezko errebot txapelketan. Uztaritze Kapito Harri azken bi urteetan erakusten ari den nagusitasunaz baliatu zen eta finalean ez zuen huts egin. Hazparneko Noizbait hartu zuen mendean 13 eta 6 emaitzarekin. Uztaritze taldea Pello Pelletra, Eneko Pelletra, Eneko Zarratia, Joel Migeltorena eta Erik Migeltorena joka-

lariek osatu zuten. Hazparneko Rafael Larrondo, Mikel Furnosas, Manu Larrondo, Beñat Maitia eta Claude Argindegi pilotariek osatu zuten.

Hazparnekoek, hasiera batean txapeldunei estuasunik sortuko ziotela zirudien, 4 eta 1 aurreratu baitziren, baina Eneko Pelletrak bere kalitatea atera zuen eta hortik aurrera Uztaritzeoek bereganatu zuten partida. Behar-Zana taldekoak finalerdietara iritsi ziren, baina Kapito Harrikoen aurka 13 eta 7 galdu zuten.

VILLABONA ▶

## Elkarrekoen hitzaldia eta bilera irekia

Villabonako Alkoholiko Anonimoen Elkar taldeak hemezortzigarren urteurrena betetzen duela eta hitzaldia eta bilera irekia antolatu ditu aste honetarako. *Menpekotasunak* gaia jorratuko den hitzaldia gaur izango da, 20:00etan, udal euskaltegian. Alkoholiko batek, heroinomano ohi batek, gizarte laguntzaile batek eta mediku batek hitz egingo dute. Bilera irekia larunbatean egingo da, udal euskaltegian ere, arratsaldeko zazpiretan. Bilera honetan alkoholiko anonimoen talde baten funtzionamendua eta erabiltzen diren terapia motak azalduko dira. Ondoren, Elkar taldekoek anaiarteko afaria egingo dute.

IRURA ▶

## Hurtzaindegian izen ematea etzi amaituko da

Irurako Udalak, aurretik bidalitako oharra zuzenduz, hurtzaindegian izen ematea ostiral honetan, urriak 8, amaituko dela jakinarazi du. Gogoratu, izena eman nahi dutenek hurtzaindegira bertara joan behar dutela goizeko zortzietatik arratsaldeko lau arte. 2005eko urtariletik eraman ahal izango dituzte haurrak.

ANOETA ▶

## Anoetako ezker abertzalearen batzarra bihar

Anoetako ezker abertzaleak batzarra deitu du bihar, urriak 7, arratsaldeko zazpi eta erdietarako. Udaletxean izango den batzar horretan bi gai jorratuko dira bereziki. Alde batetik, kokapen politikoari buruz hitz egingo da. Eta beste aldetik, ildo politiko nagusia, euskal zikloaren erronka izeneko gaia izango da mintzagai.



## IKAZTEGIETA ▶ INDUSTRIA



Laister amaituko dituzte industriagunea joango den zonaldeko hiritartze-lanak. ©.ESKIXABEL

# Industriagune berriko hiritartze-lanak amaitzear daude

Hiritartze-lanak amaitzean, pabilioiak egiten hasiko dira; hamabi eta hamasei hilabete bitarte iraungo dute

## OLAIA ESKIXABEL

Ikaztegieta industriagune berria egiteko lanak martxan aurkitzen dira; Zubiaurre tabernaren ondoan eta herriko beste industriagunearen parean aurkitzen den zelaiean eraikiko dute industriagune berria. Lan hori promotora pribatu bat —Aburuza eraikuntzak delakoa— ari da gauzatzen.

Egun, hiritartze-lanak egiten ari dira: industriaguneak izango dituen zonalde libreak, aparkalekuak, espaloiak, bidea... Industriagunearen sarrera berria ere egingo dute; horretarako, errepidean hirugarren bide bat egin beharko

dute, besteak beste. Lan horiek amaitzear daude.

Industriagune kalifikazioa duen inguruneak 17.270 m<sup>2</sup>-ko azalera du eta poligono industrialak horietatik 8.676 m<sup>2</sup>-ko azalera hartuko du.

## Bestelako ezaugarriak

Ikaztegiako Udalak ez du eza gutzen oraindik industriagunean joango diren pabilioi kopurua: «Ez dakigu zenbat enpresa ezarriko diren bertan», azaldu du Xabier Rezabalek, Ikaztegiako Udaleko arkitektoak. Izan ere, oraindik industriagunearen plan partziala dago onartuta.

Exekuzio proiektua amaitzean omen dago eta oinarriko proiekturik ezean, Udalak ezin du jakin industriagunearen tipologia. Poligono bakar baten itxura izango duela esan du Ikaztegiako arkitektoak.

Industriagunea nolakoa izango den («laister») jakingo dela aurreratu du Rezabalek: «Pabilioien proiektua aurreratu dago eta, beraz, epe motzean lanak hasteko baimena eskatuko dute udaletxean». Ondo bidean, baimena eskatu eta pabilioiak eraikitzen hasten direnetik, hamabi eta hamasei hilabete bitartean, industriaguneko lanak amaituko direla ere azaldu du.

## IKAZTEGIETA ▶

## Jubilatuen irteera joateko izen-ematea zabalik

Urriaren 20ean egun pasa ederra egiteko aukera dute herriko adinekoek. 08:30ean udaletxe aurretik abiatuko da autobusa; Senpere lakuan (Lapurdi) goiza pasa ondoren, Nafarroa aldera joango dira Señorío de Bertiz parkea bisitatzen. Eguerdietan, Berara gerturatuko dira, eta bertan bazkalduko dute. Arratsaldea, berriz, Lesakan igaroko dute. Izena emateko azken eguna datoren asteko osteguna, urriaren 14a, izango da; eta izena emateko udaletxera gerturatu beharko dira interesatuak. Irteeran parte hartu nahi dutenek hogeita bat euro ordaindu behar dituzte izena ematerakoan.

## ALTZO ▶

## Liburutegia irekita egongo da arratsaldetan

Herenegun, urriaren 4ean, ireki zuten Altzoko liburutegia; ohiko ordutegia izango du, hau da, 17:00etatik 19:00etara egongo da zabalik. Liburutegian, liburuak irakurtzeko, margotzeko eta marrazteko aukera izango dute hurrek, besteak beste. Udaletxetik azpimarratu dutenez, oraindik zehaztu gabe izan arren, aurreko urteetan bezala, hilero hurrei zuzendutako ekitaldiaren bat antolatuko dute. Liburutegiaren arduradunak Itziar eta Amaia izango direla ere zehaztu dute. Azarotik aurrera, bestalde, liburutegiko ordutegian, KZgunean nabigatzeko aukera izango dute altzotarrek.

## ABALTZISKETA ▶



Ariketa fisikoari buruzko hitzaldia Kultur Gelan izan zen. ©.ESKIXABEL

## Ariketaren onurei buruzko hitzaldia

Ariketa egitearen onurak fisikoak eta psikologikoak azaldu zituen atzo Miren Saldaña adituak Abaltzisketako udaletxean aurkitzen den Kultur Gelan egindako hitzaldian. Ariketa fisikoa eta kirola sustatzeko eta horrek osasunari dakartzkion onurak aipatu zituen, adina dela-eta sortzen diren arazoei aurre egiteko osasungarriak diren ariketak proposatzearrekin batera.

## iragarki laburrak ▶



**Aizarnazabal.** Txakoli-saila duen 50.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila salgai.

Nekazal ustiapenaren bitartez bi familientzako etxebizitza egiteko aukera.

**Albiztur.** Etxe rustikoa salgai; hiru solairukoa. Solairu bakoitzak 120 m<sup>2</sup> dauka, eta 200 m<sup>2</sup>-ko lursailarekin.

**Bizitzera sartzeko prest.**

**Andoain.** Bi gelako etxebizitza; egongela, sukaldia eta komonarekin. Oso eguzkitsua.

**Anoeta.** Etxea duplexean salgai; garajea aukeran.

**Belauntza.** 1.060 m<sup>2</sup>-ko pabilioa salgai; erabat garbia eta garbiarekin.

**Donostia.** Hotel Costa Vasca inguruan, 94 m<sup>2</sup>-ko bulegoa salgai; banatzeko aukera.

**Donostia.** 104 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai Colon pasealekuan. Ikuspegi zoragarriak ditu; erabat berritua dago.

**Gaintza (Nafarroa).** 3 solairuko baserria salgai; berritzeko.

**Ibarra.** 95 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, oso eguzkitsua, kanpoaldera begira.

**Ibarra.** 75 m<sup>2</sup>-ko pabilioa eta

nekazari-tzarako egokia den 2.500 m<sup>2</sup>-ko lursaila.

**Ibarra.** Guridi maisua kalean 85 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, eguzkitsua, kanpoaldera begira eta hornitua.

**Ibarra.** 75 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza. Berritzeko. Lehenengo pisua; kanpoaldera begira.

**Lasarte.** Egoera bikinean dagoen 62 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, kanpoaldera begira.

**Legerreta.** 1.000 m<sup>2</sup>-ko pabilioa salgai, 5.000 m<sup>2</sup> dituen lursailaz hornitua, erosteko edo alokatzeko.

**Lizartza.** 14.000 m<sup>2</sup>-ko pabilioa, eraikuntza berria.

**Segura.** Erabat berritua duden 60 m<sup>2</sup>-ko eta 90 m<sup>2</sup>-ko bi etxebizitza salgai.

**Tolosa.** Erremontari kalean berritua dagoen etxebizitza salgai, 2 gela, egongela-sukaldia, bainugela eta trastelekuarekin; kanpoaldera begira.

**Tolosa.** San Esteban auzoan, 76 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai. Hiru fatxada ditu; oso eguzkitsua.

**Tolosa.** Nafarroa etorbidean 140 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai; garajea aukeran.

## IBARRA ▶ HEZKUNTZA



Ibarrako Kultur Etxean elkartzten dira hileko lehen astelehenean guraso eskolan. IÑIGO TERRADILLOS

## Guraso Eskolak ekin dio heziketan laguntza eskaintzeari

Emakumeak dira eskolan parte hartzen dutenak eta gizonezkoen hutsunea nabarmentzen dute irakasleek

IÑIGO TERRADILLOS

Atzo hasi ziren Ibarrako Kultur Etxean, Ibarrako Udalak eta Uzturpe Ikastolak antolatuta gurasoentzako eskolak. Ez da, ordea, lehen urtea eskola hauek antolatzen direla, honekin bosgarren urtea egingo baitute.

Maria Jesus Uranga eta bere alaba Ana Elosegia dira eskola honetako irakasle edo gidari lanak betetzen dituztenak. Elosegia sikologa da eta Uranga, berriz, familian berezituriko terapeuta.

Ama eta alaba aritzen dira duten esperientzia eta jakituriaz baliatuz, eskolara joaten diren gurasoei euren haur eta

gaztetxoaren heziketan laguntze lanetan.

15 pertsonen osaturiko bi taldetan daude banatuta gurasoak; 11 urtetik aurrerako gazteak dituztenak batetik, eta 8 urte bitartekoak bestetik.

Gizonezkoen hutsune argia nabaritzen dela aipatzen du Maria Jesus Urangak; «guztiak emakumeak dira, eta animatu izan diren gizonezkoek ez dute amaierarte jarraitu», dio terapeuta, eta gizonaren papera uste baino garrantzitsuagoa da, «gizonen esperientziak ere ikasi behar dugu eta hori falta zaigulako».

Eskolen inguruan ikasle diren emakumeen parte-hartzea azpimarratzen dute; «hitz egi-

teko erraztasuna dute, konfiantza handia dago eta errespetua diote elkarri».

Seme-alabekin komunikazioa hobetzea nahi izaten dute gehienek eskola hauetan, eta nerabeak arduratzen dituzten gaiei buruz aritzen dira hauek hobeto ulertzeko. Haurrak dituztenei hauen heziketan dituzten kezkek argitzen saiatzen dira. Laguntza moduko bat izaten da gurasoentzat.

Atzo hasi ziren eta hileko lehen astelehenean izango dira gainontzeko eskolak. Haurrak dituzten gurasoek 17:00etan eta 11 urte goragokoenak 18:45ean izango dira Kultur Etxean. Oraindik izena emateko aukera dago.

## IBARRA ▶ GIZARTEA

## Hiri antolamenduko aldaketak zehaztu dira

Etxebizitza berriak eta hiri-lurzatietekin dauden proiektuak azaldu dituzte

I. TERRADILLOS

Udalbatzarraren ohiko bilkurarako deialdia egin zen atzo arratsaldean Ibarrako udalbatzarraren.

Bilkura honetan, hainbat gai azaldu ziren aztertzeko, Ibarrako hiri antolamenduko arauen aldaketa zehatza aurreratzeak eta Argindegi 18-20an eraikitako prezio finkatuko etxebizitzak pisu handiena hartu zuelarik.

Ibarrako hiri antolamenduko arauen aldaketa zehatza aurreratu zuten bilkura honetan; lau aldaketa dira eta, beste beste, Euskal Herria 21. zenbakiko hiri-lurzatian izango den aldaketaren berri eman zuten, lur zati honetan

etxebizitzak eraikitzeko asmoa baitago.

Aldaketa horien artean Ezeizenea, Erreondonea eta Papelera Tolosana eremuaren zehaztea ere egin zen.

Hautetaz gain, Argindegi 18-20an, prezio finkatuko etxebizitzak, trastelekuak eta garaieak eraikitzeko, eta 18-20ko etxe berria erosteko eskuratzailak zozketa bidez hautatzeko baldintza administrati- boen agiria aurkeztu zen.

Azaldu ziren beste gaien artean, Donostia-Gipuzkoa Kuxarako, Anoeta-Ibarra-Legoretan; lau aldaketa dira eta, beste beste, Euskal Herria 21. zenbakiko hiri-lurzatian izango den aldaketaren berri eman zuten Udaleko ordezkariak.

## IBARRA ▶

### Tailerretan izena emateko aukera dago oraindik

Ibarrako Udala Kultur eta Gazteria Sailak, Tolosako Udala Kultur eta Gazteria Sailarekin batera antolatutako kultur lantegietan lekua geratzen denez, interesaturik dauden pertsonen matrikulatzeko aukera eskaini nahi zaie. Lorazaintza tailerra asteartean izaten da 17:00etatik 19:00etara, ehoziri eta bainika tailerrak asteartean 15:30etik 17:30era edo 17:30etik 19:30era eta ostiraletan 10:00etatik 12:00etara dira, eta areto dantzak ostegunetan 20:00etatik 22:00etara izaten dira. Izena emateko azken eguna urriaren 8a, etzi, da eta 943 67 03 99 eta 943 67 05 61 zenbakietara deitu behar da.

## BERASTEGI ▶

### Magia eta dantza musikaren hastapenetan

Bihar, urriak 7, 17:30ean Berastegiko Gaztainondo jubilatu elkarteak hitzaldia antolatuko du. Daniel Ugalde izango da hizlaria eta musikaren jatorriaren eta bilakaeraren berri ematea eta adieraztea izango du helburu. Historian zehar izandako prozesu gisa aztertuko da eta lehenengo musika formatatik magiarekin eta dantzarekin harreman estuan eta naturarekin lotuta. Naturaren imitazioak, dantza, magia eta erlijioa musikaren erritmoari lotuta eta historian gehien erabilitako instrumentuak eta hauen bilakaerak osatzen dute besteak beste hitzaldi honen egitaraua.

# www.tolosaldekohitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

### zorion agurrak bertan:



## KOMUNIKABIDEAK ▶

## JAIONE ASTIBIA

**F**M-ko 107.8tik aritzen dira hizketan egunero-egunero, asteburuetan izan ezik; estudioa Leitzako udal-txeko aurreneko solairuan dute; Leitzakoa izan arren, Aresokoa ere badela esan daiteke; bertan bi lagun ari dira lanean.

Karrape Irratiaz ari gara. Eta hor astelehenean eman zioten hasiera ikasturteari. Hasi ere, berrikuntzekin egin dute gainera. Udan, garaiak ere hala eskatzen du eta, irratsaioak la-saiagoak, musikalagoak izaten dira. Baina giroa epeltzen joan ahala eta hotza esnatzen, Karrape Irratian ere uhinak egon ezinik jartzen dira nonbait eta, urtero, neguko ohiko programazioa itzultzean, aldaketak jasaten ditu: gutxiago edo gehiago, egunero saio berriren batekin etorri dira oraingoan ere.

«Urte beteren ondoren ohiko bilakatu den programazioan, normalean hamabosterokoak izan diren saio berriak sartu ditugu, ostegunetakoan izan ezik. Eta mantendu diren zenbait atal, berriz, egunez aldatu dira, programazio beharren arabera», azaldu du bertako esatariak. Entzuleari ez omen zaio arrotz eginen, ordea, emankizuna, ohikoak diren saio eta kolaboratzaileek beren lanarekin jarraitu behar omen dutelako, «edozein moduz, beti egunerokotasunak izanen du lehentasuna. Egune-ko gaien errepasoa ez ezik, gaiak landu ere eginen ditugulako», erantziz.

Aurtengo neguan, beraz, Karrape Irratiko Aresoko eta Leitzako entzuleek gustua badute, gai oso desberdinei buruzko irratsaioak entzuteko aukera izanen dute, astegunetan, 11:00etatik 14:00etara. Besteak beste, gerrak gai hartuta, horren inguruan sortu daitezkeen galderei (kausak, eragileak, ondorioak...) erantzuten saiatuko da Luzio Tabar, Iruñeko Kontzientzia Eragozpeneko Taldeko kidea. Eta gizarte kontuekin jarraituz, EHNE eta UAGN nekazal sindikatuek saio bana izanen dute, ohi dutenez.

Astean zehar bestelako eta non-nahiko komunikabidetan azaldutako bitxikeria, hankasartze, astakeria... modura har litezkeen esaldien bilduma emanen dute aditzera. Musikak ere beste txoko bat gehiago izanen du Nerea Erbitik egiten duenaz gain, Urko Arozek musikak nola egiten erakutsiko baitu, erritmoak, nahasteko, konposizioak... ezagutzeko aukera emanen. Bestalde, astero pertsonaia eza-



Erletatik Karrapera irratsaioa, eskolako ikasleek egiten dute eta udaberriak aurrera berriz ere hortxe izanen dira lanean. JAIONE ASTIBIA

## Karrapetik, jolasak berrituz

Ikasturte berriari, programazio berriaz ekinen dio Leitzaldeko irratiak



Leitzako Karrape Irratiak, ikasturtearekin batera bere programazioa berritu du eta ohiko saioez gain, jolas berriz hornituta heldu da. J.A.

gun baten musika gustuak jakiteko aukera ere izanen da.

Ezusteko izanen den beste saioa *A ze pare!* izanen da, hau urtariletik aurrera plaza-ratuko dute, herriko beste bi laguneren eskutik, Sergio Merino eta Migel Mari Elosegik zehazki. «Honen inguruan ezin dezakegu argitasun gehiagorik eman», esan eta xehetasunak ixilpean gorde zituzten, «(txoin egin behar da)». Beste erre-medioren ezean, sukaldako txoko-

tik aditu baten lankidetzaz erakutsiko dituzten errezetak prestatzen saiatuz itxoin behar.

Eta berrikuntzetan berriena, Karrape Irratia estudioetik ateratzen eginen duten ahalegina izanen da. Hilabetero pertsonaiaren bati egin ohi zaion elkarrizketak uzten duen heinean, edozein lekutatik eginen baitute saioa: dela baserria, dela eskola, dela mendia, dela...

## KARRAPE IRRATIA ▶

## BERRIKUNTZAK

## Astelehena.

▶ **Gizartea.** Luzio Tabarrek, gerra gai izanik, saioa eginen du hamabostero.

## Asteartea.

▶ **Musika.** Urko Arozek, musika landuko du, batez ere xehetasunetan erreparatzen erakutsiz... Hau ere hamabostero.

## Asteazkena.

▶ **Sukaldaria.** Sukaldaritza saioan eguneroko nahiz platera bereziak ere prestatuko ditute, aditu baten laguntzarekin.

## Ostirala.

▶ **Esaldi bilduma.** Astean zehar komunikabidetan azaldutako esanera bereziak, bitxiak... emanen dituzte aditzera.

## ▶ Kanpotik.

Estudiotik kanpora atera eta herriko leku desberdinetatik eginen dute saioa.

## ▶ Musika zaletasunak.

Pertsonaia bati bere musika gustuez galdeginekin diote eta bere horren arabera saioa eskaini.

▶ **'A ze pare!'** Urtariletik aurrera, hamabostero, Sergio Merino eta Migel Mari Elosegik eginen duten saioa. Zer buruz? Ez jakin bada oraindik.

Kontuak kontu, gainera entzuleek dagoeneko, ongi aski ezagutzen dituzten ohiko kirol tarte, lehiaketa, zorian agur, informazio zerbitzu eta beste, dituzte, kolaboratzaileen eskutik jasotzen dituzten saioez gain: euskaltea, Euskara Zerbitzua, apaizak, liburutegia, kontsumitzaile bulegoa, Leire Karreraren trukoak, Drogomenpekotasun zerbitzua, Pablo Feoren Internetari buruzko oharrak, Lierni Elortzak Ordiziako feriaz, Joxe Landak eguraldiaz eta Joxe Mari Razkinek Aurreraz ematen dituzten azken ordukoak, Nafarroako beste euskal irratietatik jasotako berriak... Hauek guztiak eta Arantxa Iparragirre eta Unai Zabaleta esatariak aritzen dira lanean Karrape Irratian. Baina gehiago izatea nahi dute, «edozein gairi buruz, saioetan... iradokizunak, kolaborazioak, kritikak... entzuleek parte hartzea nahi dugu bai bertara deituz edota mezuak igorritz. Hori da gure nahia. Irratia entzuleen eta gu guztien artean egitea», zioten. Horretarako, 948 610 914 telefono zenbakira deitu edota [karrapeirrati@euskalerrria.org](mailto:karrapeirrati@euskalerrria.org) korreo elektronikora mezua bidaltzea aski da. Aukera polita.

## TELEFONOAK ▶

## LARRIALDIAK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 69 24 23

**Berastegi-Elduain.** Medikua: 68 33 61

**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34

**Ibarralde.** Osasun etx.: 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29

**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Lizartza.** Medikua: 68 20 77

## Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald.: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzio klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

**Villabona.** Anbulat.: 00 69 70

**Zizurkil.** Aitzondo zerb.: 693930

## GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxis: 67 04 20

## KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldirizaria: 30 07 32

▶ Ttipi Itapa ald.: 948 631888

## EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur.** Santamaria, Nafarroa, 2, (Tolosa). 943 65 46 10.

Erbiti O., Lizarraga, 7, (Leitza).

112.

## TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitate.** 661 67 88 18.  
tolosaldean\_publi@tolosaldeko-hitza.info

**Tolosa.** 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

**Villabona-Aitz.** 687 41 00 22.

villabona\_aitzondo@tolosaldeko-hitza.info

**Anoeta.** 687 41 00 22

anoeta@tolosaldeko-hitza.info

**Ibarralde.** 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko-hitza.info

**Alegialdea.** 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

**Leitza.** 687 41 01 18.

leitza@tolosaldeko-hitza.info

## iragarki laburrak ▶

## ESKAERA

**Gasteizera joateko.**

Astelehenetik ostiralera, eguerditan, Tolosatik Gasteizera autoz joateko norbait behar dut. Gastuak erdiban. Telefonoa: 600 05 42 27.

## AGENDA ▶

### AURKITUAKOAK

**Ibarra.** Urrezko pultsera bat domina batekin aurkitu zuten irailaren 25ean. 943 67 37 27.

**Tolosa.** Kate bat eta eraztun bat aurkitu dituzte. Galdu dituenak dei dezala 943 68 33 51 telefono zenbakira.

### DEIALDIAK

**Tolosa.** Batasunaren batzarra 20:00etan Kultur Etxean. Aurrera begirako ildo politikoa aurkeztuko da. Kide guztiak daude deituta.

**Tolosa.** *Ibilbide 181.a* dokumentala eskainiko dute bihar eta etzi, 19:30ean, Kultur Etxean. Palestinaren Lagunen elkarteak antolatuta du ekimena.

### ERAKUSKETAK

**Tolosa.** Txaro Medranoren koadroak Sorron dendan.

**Tolosa.** Olivia Sanchezen margokanek Lanbroa.

**Tolosa.** Ricardoren zapatak Oskarbi tabernan (Iurre).

### IKASTAROAK

**Ibarra.** Gimnastika erritmikoan zabalik da izena emateko epea. 629 112061.

**Ikaztegieta.** Aerobik ikastaroan izena emateko aukera dute herritarrek egunotan: udaletxean (943 65 33 29) edo kiroldegian (943 65 20 46).

**Tolosa.** Gimnastika erritmikoko eskolan izena eman daiteke, Igarondo igerilekuan eta Tolosa CFko bulegoetan.

**Tolosa.** Udaberri dantzari taldeak haurrentzako dantza ikastaroa antolatuta du larunbatetan. Izen-ematea: gaur 20:00etatik aurrera Igarondo igerileku ondoko egoitzan.

# Lore lehorren artea

**TOLOSA ▶ Errenteriako Ana Gonzalez Atorrasagastik egindako lore lehorren konposizioak daude ikusgai Saikin tabernan; eskulanak ditu gustuko**



Hilabete osoan egongo dira ikusgai Gonzalez Atorrasagastiren lanak Saikin tabernan. J.SAIZAR



Kolore eta formak konbinatzen ditu Gonzalezek bere lanetan. J.SAIZAR



Lore lehorrek bere lana ematen dute konposizioa egin aurretik. J.SAIZAR

### ERREDAKZIOA

**D**uela pare bat urte hasi zen Errenteriako Ana Gonzalez Atorrasagasti lore lehorrekin konposizioak egiten, ikastaro bat egin ondoren. Baina sormena eta eskulanak ditu gustuko eta olio eta abstraktoa ere lantzen du lana utzi zuenetik.

Tolosako Saikin tabernan ditu ikusgai bere lore lehorrak. «Udaberriaren loreak jasotzen ditut eta udazkenean hostoak. Zabaldtu, zelulosa paperean ondo prentsatu eta ondoren kolore eta forma konposizioak egiten ditut, imaginazioaren arabera», dio Gonzalezek.

Oparietarako enkargu dezente jasotzen ditu artista honek eta erakusketa batzu egin ditu, azkena Pasaiaiko dendariaren azoka batean adibidez. Saikin tabernakoak ezagunak zituen eta bertan bere lana erakusteko aukera sortu zitzaion. Tolosan beste nonbaiten erakusteko aukera ez du baztertzen. Hilaren bukaera arte egongo da lore lehorren artea.

## ZORION AGURRAK ▶



### URTE ASKOAN

Ane Peña Olazabal  
(Tolosa). Gaur 4 urte. Zorionak pottoka etxekoan partetik.



### URTE ASKOAN

Gaur **Ekaiztek** 5 urte, bihar **Jonk** 19 eta astelehenean **Ieral**-k 7. Zorionak senide guztien aldetik.

**HITZA, zorion agurren**  
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, **tartea**  
ezkontzak, jaioberriak...  
zoriontzeko, etorri: **HITZAren egoitzetara:**  
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**  
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**  
**Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!**